

AZERI BUZTANA

Sendak
belarrak

haziak

sendabelarrak.haziak.eus
CC BY-SA-NC

AZERI BUZTANA

(*Equisetum arvense*)

AZERI BUZTANA/ EZTAINU BELARRA

Antzinako landarea da, primitiboa dela esan daiteke. Badirudi duela milaka urte, azeri buztan baso ederrak zeudela. Garai hartan zen bezalakoa omen da orain ere, dirudienez ez du aldaketarik jasan.


Lorerik gabeko landare honetan, haziak barrunbe batean daude. Marroi gorrixka edo hori koloreko barrunbe hauek, zurtoin luze baten bukaeran kokatzen dira.



UKENDUA



INFUSIOA



Aire

AZERI BUZTANA

IDENTIFIKATZEKO GAKOAK

Nolakoa da?

- Barrutik hutsa den banbu estiloko zurtoin berdeak dira.
- Zurtoin hauetan zehar adar berde fin batzuk jaiotzen dira. Landaren zati hau antzua da.
- Maiatza-apirilean esporak askatzen dituzten bestelako zurtoin emankorrak sortzen dira (ikus irudia).

Noiz loratzen da? Ez da loratzen.

Non aurkituko dugu? Hezetasuna dagoen tokiak, erreka inguruak, bide ertzak eta eguzkirik gabeko tokiak atsegin ditu.

ZERTARAKO

- Propietaterik ezagunena pixeragile izatea da, likidoak botatzeko edo eliminatzeko, hankak handituak ditugunean adibidez. Hau da, diuretikoa da.
- Larru azaleko arazoetan (zauriak, ekzemak, ultzerak, honddoak, herpesak...) ere erabiltzen da.
- Organismo ahulduei erremineralizatzen laguntzen die. Anemia edo nekearen kasuetan adibidez. sortzeko lagungarria.
- Azkazalak eta ilea indartzeko belar honekin egindako infusioak hartzen dira.

BILTZEKO GARAIA

- Behar duguna soilik hartuko dugu beste guztia bertan utziaz.

- Zainak ez badira erabiltzen ez ditugu zainak jasoko, bestela belar hori ez da berriz hor jaioko.
- Babestutako eremuetan ez jaso eta aukera dagoenetan landare asko dagoen tokian bildu.
- Landarea eta ingurua zaindu.
- Kontuz kutsadurarekin, kotxeen keak, txisa...

ATAL PRAKTIKOA

KONTUZ! Edozein erabilpen egin aurretik osasun arloko profesional batekin hitz egin behar da eta bere aholkuak jarraitu. Lan honetan ematen den informazioa eta erremedioak ez dira medikuen tratamenduen ordeko.

Iodo belarraren kasuan jakin sendabelar honekin, besteak beste, ukenduak eta kataplasmak egin daitezkeela.

- Larru azaleko arazoetan, infusioa egin eta horrekin zonaldea garbitu dezakegu, bai eta arazoa dugun tokian zapi bustia ipinidenbora batez.
- Ukendu askoren osagaia da.

AKTIBITATEAK

Landarea lokalizatu eta bere garapena behatzera animatzen zaituztegu, garai antzua eta emankorra bereiztuaz.

AD!!! Lan honetan ematen den informazioa eta erremedioak ez dira medikuen tratamenduen ordeko. Beti ere sendagile edo jakitun baten aholkupean jardungo dugu eta ez ditugu behin ere kantitateak gaitutuko arriskutsua izan daitekeelako. Edozein erabilpen egin aurretik osasun arloko profesional batekin hitz egin behar da eta bere aholkuak jarraitu. Hemen emandako informazioaren erabilera okerra eginez gero, ez gara sor daitezkeen arazo edo eta kalteen erantzule izango.